


**MONEDA KULTURA ETXEA**  
C MAILA

**SERAPIO MUJIKA PASEALEKUA 10**



**Egile eta data ezezagunak**

**Deskribapena**

Oinplano nabarmen karratuko etxea. Behe oineko, lehen oineko eta lau isurkiko estalkiko profila du. Fatxada nagusia harlanduz eraikita dago, eta gainerakoa harlangaitz horma entokatuz. Alboak erdisotoan geratzen dira, eta atzeko fatxadan soto oin bat dago. Nabarmendu egiten da harriaren moldurazioa baoetako hegazpeetan eta barlasaietan, eta mentsula landuko zurezko hegalkinaren aurretik dagoen erlaitzean. Era berean, bebarruaren arku beheratua nabarmentzen da, nahiz eta nolabaiteko erakuntza zailtasunak erakusten dituen; bai eta sabaiaren kasetoidura eta ateen arotzeria ere.

**Babes erregimena**

- 1.- Babes erregimen orokorra:  
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko babes erregimena:
  - A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak edo zatiak: ez.
  - B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak eta zurezko egitura estalkian.
  - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurak ez dira onartzen.
  - D.- Nahitaezko lehengoratzeak: ez.